

2025eko irailaren 22tik 26ra Guatemalako lau lagunek Euskal Herria bisitatu dute **medicumsmundi** Bizkaiaren eskutik.

## Nor datorkigu bisitan?



**Rosa Chex**

### **Emagina eta osasun sustatzailea**

Maia Kaqchickel, Chimaltenangokoa. 34 urte emagin gisa. Osasun sustatzaile komunitarioa 2000. urtetik. NIM ALAXIK Emaginen Mugimendu Nazionalaren lehendakaria eta sortzaileetako bat. San Juan Comalapako emaginen eta osasun sustatzaileen kontseiluaren sortzaile eta zuzendaria. San Juan Comalapako alkatetza indigenako kidea, autoritate makila jaso zuen. 2017an sortu zenetik, San Juan Comalapako Behatokiko kide aktiboa.



**Maritza Cojón**

### **CPDLren Koodinatzaile Orokorra eta Genero Koodinatzailea**

Maia kaqchikel liderra. Gizarte Lanean lizentziaduna. Bideratzaile judiziala: landa eremuko komunitateetan eta emakumeetan justiziara iristen laguntzen die. Indarkeria biziraun duten emakumeentzako proiektuen buru izan da, Estatuko erakundeekin eta gizarte zibilarekin lankidetzan. 2021ean, NBEen bozeramaile aritu zen Sololako lehen emakume indigena bihurtu zen. Aurretik, estereotipoak hautsi zituen Hiri eta Landa Garapenerako Kontseilu Komunitarioko (COCODE) eta Emakumearen Udal Batzordeko kide gisa.



**Hugo Reyes**

### **CPDLren Zuzendaria 2014tik**

Ekonomian lizentziatua eta lider komunitarioa, esperientzia handia Guatemalako landa komunitateekin lanean. Herritarren parte hartzea eta emakumeak lider izatea bultzatzen du, eta komunitateek beren etorkizuna eta jarduna euren kabuz erabaki dezaketela sinesten du, beren bizitzak hobetzeko. Proiektu ekonomiko komunitarioa asko sustatu ditu, eta bakearen kultura ere bai, batez ere Guatemalako gatazka armatuaren ondoren.



**Nancy Bac**

### **ASECSAren Proiektuen Koodinatzailea**

ASECSAren Chimaltenango eskualdeko koodinatzailea eta herritarren behatokiaren proiektuaren arduradun teknikoa. Maia kaqchikel. Kudeaketa Publikoan eta Lurralde Garapenean lizentziatua. Unibertsitateekin, bake gaietan, erakunde indigenekin, gazteekin eta emakumeekin lan egin du. Halaber, Guatemalako Elikadura Subiranotasunaren Aldeko Sare Nazionalerako (REDSAG) aholkularitzak egin ditu. Herri indigenen kulturari eta justiziarri buruzko nazioarteko mintegietan aritu da.

Emakume maiak herritarren behatokiaren buru eskubideak aldarrikatzeko eta lurra defendatzeko

## Herritarren behatokiekin engaiatutako elkarteak



### CPDL

#### Colectivo Poder y Desarrollo Local

2003an Guatemalako emakume eta gizonek sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte zibil apartidista eta laikoa da. Bere lana garapen integrala sustatzea da, eskubide, aukera eta erantzukizun ekitate printzipioetan oinarrituta. Esperientzia handia du komunitate antolaketan eta emakumeen eta gazteen partaidetzan bultzatzen.



### ASECSA

#### Asociación de Servicios Comunitarios de Salud

ASECSA 1978an sortu zuen Comité Regional de Promoción de Salud Comunitaria-k. ASECSA Guatemalako elkarte bat da, gobernuz kanpokoa eta irabazi-asmorik gabekoa; osasun arloko 58 erakunde komunitarioko sare bat osatzen du.



### medicusmundi Bizkaia

Nazioarteko osasun-lankidetzarako GGKE bat gara, 1966an Bilbon sortua. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, independentea, bai akonfesionala bai politikoki, plurala, parte-hartzailea eta demokratikoa.

Gure helburua gizartean aldatetak sortzen laguntzea da, elkartasun kultura eta herritarren konpromisoa sustatuz, pobrezia desagerrarazteko eta osasuna pertsona guztien eskura dagoen eskubidea izan dadin.



### eLankidetzak

Bisita hau eLankidetzak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak, lagundutako “Mujeres mayas lideran observatorios ciudadanos de Chimaltenango y Sololá para la exigibilidad de derechos y defensa del territorio. Guatemala. Fase II” proiektuko ekintza bat da.



Emakume maiak herritarren behatokiaren buru eskubideak aldarrikatzeko eta lurra defendatzeko

## Guatemala eta Chimaltenango eta Solola departamenduak


**Guatemala** Erdialdeko Amerikako herrialderik jendetsuena da (17,84 milioi biztanle, %62,5 dira 30 urte baino gazteago), eta eskualdeko lehen ekonomia ere bada. Ekonomia hazten ari den arren (2024an %3.65), desberdintasun sakonak daude oraindik: %80 dimentsio anitzeko pobrezia egoeran bizi da eta, Giza Garapenaren Indizearen arabera, munduko 193 lurralderen artean 136. postuan dago (aurreko neurketan 127. herrialde garatuena zen). Haurren %60k desnutrizio kronikoa du, eta BPGren %1,8 baino ez da bideratzen osasunera (OMEk %6 gomendatzen du). Guatemalan biztanleriaren % 44 indigena da eta 25 herri etniko daude (horietatik 22 maiak dira).



**Solola eta Chimaltenango** herrialdeko 22 departamenduetako bi dira; bertako biztanle gehienak indigenak eta landa eremukoak dira, bereziki Sololan (%96 indigena da, %78 landa eremukoa). Gainera, Solola herrialdeko bigarren departamentu pobretuena da. Proiektu hau Sololako 5 udalerritan (San Andrés Semetabaj, San Antonio Palopó, San Lucas Tolimán, Santiago Atitlán eta San Pedro La Laguna) eta Chimaltenangoko 3 udalerritan (San Juan Comalapa, San Martín Jilotepeque eta Tecpán) kokatzen da.

Hainbat analisiren arabera, Guatemala da **genero desberdintasun** handiena duen Latinoamerikako bigarren herrialdea (Haitiren atzetik). NBGPk genero desberdintasun oso handia duela aipatzen du, bereziki, ugalketa osasun eskasa, emakumeen partehartze politiko txikia eta emakumeen lan egoera txarra. Izan ere, Guatemalak eskualdean soldata arrakala txarrenetakoa du: emakumeen batez besteko diru sarrerak gizonen diru sarreren % 45 inguru baino ez dira. Emakumeak buru dituzten familien %75 pobrezia multidimentsional egoeran bizi dira; gizonak buru dituztenetan, %46. Ordaindu gabeko zaintza lanen %78 emakumeek egiten dute, eta landa eremuko emakumeen %35ek bakarrik bukatzen ditu bigarren hezkuntzako ikasketak.

**Ingurumenari** dagokionez, Guatemalak hondamendi geologiko, hidrologiko eta meteorologikoak jasaten ditu, baina Latinoamerikan horiek kudeatzeko gaitasun txikiena duen hirugarren herrialdea da. Gainera, klima-aldaketaren ondorioak sumatzen dira, ingurumen ondasunak galtzen ari dira baliabide naturalen erabilera irrazional, kontrolik gabeko eta jasangaitzagatik, eta ingurumen kutsadura dago Estatuko erakundeek ez dutelako behar beste kontrolatzen, kudeatzen eta arautzen, agrokimikoak erabiltzen direlako eta enpresa transnazionalak baliabide naturalak ustiatzen dituztelako. Global Witnessen arabera, 2018 eta 2023 artean naturaren 54 defendatzaile hil zituzten Guatemalan.



Emakume maiak herritarren behatokien buru eskubideak aldarrikatzeko eta lurra defendatzeko

## Herritarren behatokien helburuak eta jarduerak

Helburuak: Chimaltenango eta Sololako emakume maien antolaketa eta parte-hartzea indartzea. Emakumeen gorputzen eta lurraldearen defentsaren aldeko tokiko politika publikoetan eragitea. Herritarren behatokietan eta erabakiak hartzeko espazioetan emakumeen rol protagonista bultzatzea eta garatzea, emakumeen eskaera eta behar estrategikoak politika publikoetan eta plan operatiboetan txertatuz. Herritarrek eta behatokiek gizartearen eragiteko gaitasunak indartzea. Demokratizazio irizpideetan eta eragile publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren harremanetan oinarritutako tokiko gobernantza ereduaren lortzea laguntzea.

Behatokiak osatzen dituzten pertsonentzako prestakuntzak: **Giza Eskubideen Diploma** ikastaroa, Universidad Maya kaqchikel-ek emana. **Genero Ikuspegiaren Gida** aurkeztea, Herritarren Behatokien prozesuetan ikuspegi hori txertatzeko. Ikuskaritza prozesuak **autoebaluatzeko** tailerra. **Osasun mentaleko** tailerra.

Ikuskaritza ariketak egin eta proposamenak lantzea: Proposatutako gaiei buruz **ikuskaritza** jardunaldiak egitea, gardentasuna bermatzeko eta komunitatearen ongizatea sustatzeko. Herritarrei **elkarrizketak**: komunitateetan, kalean, eskoletan, erakunde publikoetan eta dendetan. Helburuak eta estrategiak idaztea **ingurugiro osasuntsua** izateko eskubidearen arloan. **Emakumeen interes estrategikoak** definitzeko eta lehenesteko tailerrak.



Betebeharren titularrei eta herritarrei behaketen txostenak aurkeztea: Behatokiak erakunde publikoen aurrean eraikitako proposamenak irakurtzea, konpromisoak ezartzeko modu gisa. **Elikadura eta nutrizioaren osasun egoerari** eta Estatuko erakundeek gai horretan duten zereginari buruzko behaketa jardunaldiaren emaitzak jendaurrean aurkeztea. **Lurraldeko uraren egoeraren** aurkezpena, komunitatearen kezkak, egiturazko erronkak eta ura eskura edukitzeko eskubidearen defentsarako proposamenak jasoz, gizarte eta ingurumen justiziaren ikuspegitik. **Hondakin solidoek eragindako kutsadurari** eta **hondakinak tratatzeko, biltzeko eta kudeatzeko sistema faltari** buruzko txostenak. **Emakume eta haur indigenen eskubideen txosten alternatiboaren** eta sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuei, ama-haurren heriotzen egoerari eta emakume indigenen parte hartzeari buruzko NBEren **Aldizkako Azterketa Unibertsalerako Tarteko Txostenaren** aurkezpenak. Spotak eta aldarrikapen ekitaldiak egun seinalatuetan, hala nola **Emakumeen Egunean** edo **Ama Lurraren egunean**, herritarrak kontzientziatzeko eta erakunde publikoetan eragiteko.

Emakumeen eta ingurumenaren aldeko bestelako jarduerak: Emakumeen **autonomia ekonomikoari** buruzko tailerra, aldaketa sozial eta ekonomikoetan lider izateko dituzten gaitasunak areagotzeko. Bikote harremanetan **indarkeria prebenitzeko** tailerrak eskoletan. **Sendabelarrei** buruzko tailerra eta laborategia, antzinako ezagutza baliotsuak berreskuratzeko eta partekatzeko. **Basoberritze** jardunaldiak, hainbat elkarteren artean eta ikasleen laguntzaz. Komunitateko eragileei **hondakin organikoak** eta **ez-organikoak bereitzeko** edukiontzi birziklatuak banatzea, lurra zaintzen eta babesten laguntzeko.



Emakume maiak herritarren behatokien buru eskubideak aldarrikatzeko eta lurra defendatzeko



**medicmundi Bizkaia-rekin harremanetan jartzeko:**

*Jon Mikel Benito del Valle Solaun*

944127398 // 688717051 [comunica.bizkaia@medicmundi.es](mailto:comunica.bizkaia@medicmundi.es)

Emakume maiak herritarren behatokien buru eskubideak aldarrikatzeko eta lurra defendatzeko